

## Info Bilbao

# BILBOKO UDAL MUSIKA BANDAK ETA KORRONTZIK DISKO BATERATU BATEKIN OSPATUKO DUTE FOLK TALDE EZAGUNAREN 20. URTEURRENA

- Fusio honen helburua Korrontziren errepertorioa Musika Banda baten esparrura eramatea da, hau da, trikiak indarra hartzea Bilboko Udal Musika Bandako 40 musikari baino gehiagoren laguntzarekin.
- Musika zuzendaritza Jose Rafael Pascual-Vilaplana Bandaren zuzendari titularren ardura izan da, eta Xabier Zabalak musika moldaketak egin ditu.
- Disko berezi hau gaurtik, azaroak 27, aurrera izango da salgai, eta abenduaren 5etik 8ra ospatuko den Durangoko Azokan ere presente egongo da.

(Bilbo, 2024ko azaroaren 27ean).- Bilboko Udal Musika Bandak eta Korrontzik elkarrekin grabatutako diskoa aurkeztu dute gaur goizean talde euskaldunaren 20. urtebetetzea ospatzeko, euskal folkaren sustraiak eta musika banda baten indar sinfonikoa uztartzen dituen diskoa, alegia.

Ekitaldia Bilboko Udaletxeko Prentsa Aretoran egin da, eta bertan izan dira **Itziar Urtasun**, Bilboko Udaleko Berdintasun eta Jaietako zinegotzia eta Bilbao Musikaren Administrazio Kontseiluko zuzendaria; **Begoña de Ibarra**, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendaria; **Agus Barandiaran**, Korrontzikoko burua eta sortzailea; eta **Andrés Camio "Jitu"**, Elkar Musikako zuzendaria.

Obrak taldearen 20 abesti enblematikoenak biltzen ditu CD bikoitz batean, Elkar estudioetan grabatua, eta **erronka musikal eta artistiko** handi baten emaitza da: Korrontziren errepertorioa musika banda baten formatura egokitzea. **Trikitixa** nabarmentzen da elementu nagusi gisa, grabaziorako bildu ziren Bilboko Udal Musika Bandako 40 musikari baino gehiagok aberastua.

Disko honekin Korrontziren **bi hamarkadako ibilbidea omentzen** da, **euskal musika eta kultura munduan zehar** eraman dituen laukotea. Proiektua errealitate bihurtzeko, zuzendaritza lanetan **Jose Rafael Pascual-Vilaplana** bandako zuzendari titularra aritu da, eta **Xabier Zabala** maisuki arduratu da musika moldaketez. Proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa izan du.

### ORAINERAKO ETA ETORKIZUNERAKO ONDAREA

Diskoa gaur, azaroaren 27an, kaleratuko da eta abenduaren 5etik 8ra Landako Gunean egingo den **Durangoko Azokaren** edizioan oso presente egongo da. Diskoa **euskal tradizioaz ikuspegi berri batekin** gozatzeko gonbidapena da, bi hamarkadako historia

ospatuz eta **etorkizunari sormenez eta gogo biziz** begiratu. Bilboko Udal Musika Bandaren eta Korrontziren arteko lankidetzan, asmoen adierazpen bat da: **euskal kulturari balioa ematea** eta munduari gure sustraiak transmititzeko modu berriak aztertzea.

Album hau abuztuaren 17an Bilboko Plaza Barrian **Aste Nagusian** eskainitako kontzertuari gehitzen zaio. Ekitaldi honek bi taldeen arteko lotura aurreratu zuen eta bertaratutakoek **euskal folkaren aberastasuna eta aniztasuna formatu berritzaile batean** ezagutzeko aukera izan zuten.

## **DISKOAK DITUEN ABESTIEN ZERRENDA**

1. Aldapan
2. Akerrak adarrak okerrak
3. Meñakoz
4. Aupa Maurizia!
5. Oilarrak oiloari
6. Parfums de musiques
7. Xoxua
8. Baratze
9. Bustuntzuri
10. Laja badoa
11. Sardos-k
12. Arkupeko dantza
13. Urtaroak
14. Ederregia zelako & Basauti
15. Panderotxo
16. Maltzeta
17. Mezobarri
18. Joxek andreari
19. Emaiogu bostekoa
20. Belardi

## **BILBOKO UDAL MUSIKA BANDA**

1895eko ekainaren 9an, José Sainz Basaberen zuzendaritzapean, Bilboko Udalaren Musika Bandak bere lehenengo kontzertua eman zuen Areatzan. Harrezkero José Franco Ribate (1924), Pedro Córdoba Rozas (1928), Jesús Arambarri Garate (1932), Bruno Muñoz (1950), Urbano Ruiz Laorden (1969), Antonino Ibarondo Oleaga (1979), Jesús María Bilbao Estefanía (1995), Rafael Sanz Espert (2002) eta José Rafael Pascual Vilaplana (2015) izan dira ehun urtetik gora dituen Udal Bandaren zuzendariak.

Bilbao Musika Toki Erakunde Autonomiadunaren barruan dago. Aipatzekoak dira bere emankizunak ekitaldi ofizialetan, ospakizun herrikoietan eta musika jaialdietan (Musika-Música), halaber, Azkuna Zentroan, Juan Crisóstomo de Arriaga Kontzertatorioan eta Areatzako kioskoan eskaintzen dituen kontzertu zikloak.

Azpimarratzekoak dira, era berean, Euskalduna Jauregiko Auditorioan egiten diren kontzertu denboraldiak. Ziklo horietan izen handiko zuzendari gonbidatuak izan ditu, hala nola: Enrique García Asensio, Pablo Sánchez Torrella, Juan José Ocón, Darío Sotelo, José M<sup>a</sup> Sáinz Alfaro, Gary F. Lamb, Richard Miles, Thomas Rotondi, Evgeny Dzhahalov, Pablo dell'Oca, Fernando Bonete, Jan Cober, Douglas Bostock, Franco Cesarini, Philip Sparke, Laszlo Marosi, Yves Segers, Maurice Hamers, Isabelle Ruf-Weber edo Nacho de Paz; elkarte eta bakarlari handiak ere bai: Pedro Iturralde, Kepa Junkera, Astrid Crone, Manuel Bobenrieth, Javier Eguillor, Manel Ramada, Santiago Juan, M<sup>a</sup> Eugenia Silguero, Euskadi Brass metalezko boskotea, Donostiako Orfeoia, Ensantzeko Koru Masa, Bilboko Koral Elkarte, Inés Olabarria, Claudi Arimany, Vicente Zaragoza, Juana Guillem, José Franch-Ballester, Manuel Blanco, Albert Guinovart, Ximo Vicedo, Fernando Latorre, Marta Ubieta eta Serafín Zubiri, besteak beste.

Bandaren diskografia 20 diskokoa da: "Aires de Euskal Herria", biniloan grabatuta; CD bikoitza, barne zuena José Franco Ribateren lanekin egindako monografikoa eta pasodobleen aukeraketa bat, mendeurrena zela eta; Ciudad de Valencia 2002 banden nazioarteko lehiaketan grabatutako CDa; "Banda Band" Oskorriekin batera; "Concierto de Navidad" eta "Cantando durante 125 años", biak ala biak Bilboko Koral Elkartearekin; "Spanish music for wind band" jazzaren arloko abestiekin; hiru CD bikoitz, Euskalduna jauregiko zuzeneko emanaldiekin, "Tell me a Brass Story" Spanish Brass metaleko boskotearekin batera; "Zarzuela" CD monografikoa, Iñaki Urkizuk zuzendua, "Urko herriko" Donostiako abeslariekin; "Miradas" David Rivas Domínguez-en obreakin; "Románticos olvidados" Emilio Serrano, Sebastián Iradier eta José Frescoren musika-konposizioekin; "Cosas de la imaginación", Eduardo Morenoren zuzendaritzapean eta "Bidaiak" eta "Haizea" Jose R. Pascual-Vilaplanak zuzenduta.

Bere jarduera ugarian kontzertu asko eskaini ditu Estatuko entzunareto eta antzoki garrantzitsuetan (Valentziako Palau de la Musica, Unió de Llíria Antzokia, Gasteizko Principal Antzokia, Iruñako Gayarre Antzokia, Tenerifeko Santa Cruzeko Angel Guimerá Antzokia, Donostiako Kursaal, Bartzelonako L'Auditori, Arriaga Antzokia, etab.) Halaber, izan du partaidetza: EITBko gabonetako saio berezi batean, Aste Nagusian Abandoibarran, Kepa Junkera, Oskorri, Sole Jiménez, Serafín Zubiri, Urko eta Doctor Deseorekin emandako kontzertuetan; Erreterriako Musikaste amaierako kontzertuan Andra Mari Korallarekin, Tenerifen, Banda Sinfonikoen Zuzendarien, konpositoreen, moldatzaileen eta instrumentisten IV. Biltzar Iberoamerikarrean; Espainako Flautistien Elkartearen IV. bileran, Madrilgo Canal-eko Antzokien Musika Banden III. topaketan, "Vila de la Sénia" Musika Banden lehiaketan, Leoneko musika espainiarren XXX. Jaialdian, Utrecht-en (Holanda) 2017ko WASBEK antolatutako Bandentzako Nazioarteko konferentzian, IFOB-a 2019 programa barruan, "La Pamplonesa" Iruñeko musika Bandaren Mendeurrenaren ekitaldietan; Toroko Latorre Antzokian (Zamoran) David Rivas-en lanekin ospatutako kontzertuan; Bilboko Miribilla Arenan Fair Saturday-aren inaugurazio kontzertuetan 1.000 artista baino gehiagorekin batera (2018 eta 2019) eta Bartzelonako Udalaren Bandarekin L'Auditorin eskainitako kontzertuan, besteak beste.

## **KORRONTZI**

Korrontzi (Euskal Herria, 2004) folk musika taldea Agus Barandiaran trikitilariak sortu zuen. Bere helburua, banda osatzean, euskal musika herrikoari zein bere lurraldeko antzinako hots tradizionaleri beste ikuspuntu moderno eta garaikideago bat ematea zen, beti ere trikitixa musikan oinarritutako ikuspuntu batetik, beronekin batera txalaparta edo alboka bezalako beste instrumentu tradizional batzuk ardatz hartuta eta bere lehen maisuak, Rufino Arrola trikitilariak (1909–1996), helarazi zion tradizio guztiarekiko erabateko errespetua inoiz ahaztu gabe.

Sonoritate berri hau lortzeko, musika estilo modernoagoez inguratu eta, besteak beste, mandolina, baxu elektriko, kontrabaxu edo perkusioen laguntza izan zuen. Urte hauetan zehar, Korrontzik bere kultura, hizkuntza, dantza eta musika eraman ditu mundu osoan zehar, jaialdi handietan joz eta hainbat herrialde bisitatuz, besteak beste: Belgika, AEB, Errumania, Cabo Verde, Irlanda, Brasil, Malasia, Eskozia, erbehereak, Grezia, Italia, Kanada, Hungaria, Portugal, Ingalaterra, Txipre, Maroko, Alemania, Kroazia, Eslovenia, Austria, Txekiar Errepublika... eta sari eta aipamen ugari ere jaso ditu, adibidez: «World Music Charts» 2014, 2015, 2016, 2020, 2022 eta 2024 urteetan, «Top100 Roots Music Report» (2015), «Womex Official Selection» (2014), «Europako banda onena, Eurofolk» (2009) eta «Penintsulako banda onena, Navelgas» (2007); gainera, bere azken lana («Korrontzi, 20», 2023) indartsu dator, urteko 5 disko onenen artean hautatuta, «Mondo Sonoro» aldizkari ospetsuaren arabera.

Laburbilduz, Korrontzi inor axolagabe uzten ez duen euskal musika talde bat da, kultura oso bateko erakusleho bat, beraien zuzenekoan indarra eta energiarekin antzinateko soinuak eta dantzak edo folkaren joera berriak transmititzen dituen. Korrontzi euskal musika eta dantza tradizionalaren jai bat da, abangoardiako ikuspuntu batekin. Euskal Herriko kolore eta paisaiak.

## **Diskografia**

- 1) “Korrontzi” (CD. Nubenegra, 2006).
- 2) “Getxo” (CD + DVD. Baga-Biga, 2008).
- 3) “Infernuko hauspoa” (DVD + liburua. Baga-Biga, 2010).
- 4) “Tradition 2.1” (CD + DVD + liburua. Baga-Biga, 2013).
- 5) “Symphonic Bilbon” (CD + DVD + liburua. Baga-Biga, 2014).
- 6) “Korrontzi Dantzan” (CD + DVD + liburua. Baga-Biga, 2015).
- 7) “Korrontzi Benefic” (CD + Postalak. Baga-Biga, 2016).
- 8) “Basque Selfie” (CD + liburua. Korrontzi Musika Ideiak, 2018).
- 9) “Topa-K (Agus Barandiaran & DJ Makala)” (CD. Elkar Argitaletxea, 2019).
- 10) “Koplariak (Korrontzi & X.Amuriza)” (CD + liburua. Elkar Argitaletxea, 2020).
- 11) “AITA MARI, Bidaia musikala urrutiko uretara” (CD+liburua. Elkar Argitaletxea, 2021).
- 12) “KORRONTZI, 20” (2 CD + liburua. Elkar Argitaletxea. 2023).